



IRUDIA AURREZAGUTZAK EZAGUTZEKO TRESNA

Eduki berriak lantzen hasi aurretik, garrantzitsua da ikasleek gaiaren inguruan dituzten aurrezagutzak eta akats kontzeptualak identifikatzea. Marrazketa garrantzitsua izan daiteke ikasleen aurretiazko ideiak adierazteko orduan.

Izan ere, marrazkia osatzeko orduan erabaki zehatzak behar direnez, ikasleek sortutako irudiak ere zehatzak izango dira haien ezagutzak ikusarazteko orduan.

Oinarri fisiko batean marrazteak ikaslearen gogameneko ideiak behatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen die, bai ikasleari, bai besteei (ikasle nahiz irakasle). Modu horretan, ideia horien inguruan hausnartu dezake ikasleak berak eta baita irakasleak ere, eta, gainera, denboran zehar ikaslearen ezagutzek izandako eraldaketaren erregistro moduan balia daitezke ilustrazioak.

Horrez gain, adierazteko edo idazteko zailtasunak dituzten pertsonentzat baliagarri izan daiteke halako teknikak erabiltzea, kasu horretan hizkuntzak sor ditzakeen gaizki ulertuak ekiditen laguntzen baitu. Euskara ez dakien ikasle batek uraren zikloa ezagut dezake, baina ez da gai izango berau hitzez adierazteko gelako gainerako kideek uler dezaten. Aldiz, marrazki bat egiteko eskatuz gero, ikasle horrek ere bere aurrezagutzak adierazteko tresna bat izango du.

NOIZ ERABILI IRUDIA AURREZAGUTZAK IDENTIFIKATZEKO

Gai edo kontzeptu berri bat gelan landu aurretik erabiliko dugu irudia ezagutzak identifikatzeko. Komenigarria irudituz gero, gai edo kontzeptu berri hori landu ondoren, ikasleak ebaluatzeko ere erabil daiteke marrazketa, hala aurrezagutzetatik izandako eboluzioa ikusteko. Beste aukera bat izan daiteke ikasle bakoitzak gai bat amaitzean bere hasierako irudia zuzentzeko erabiltzea, autoebaluazio moduan.



LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEEN HAINBAT IDEIA

- Komenigarria da ikasleak material bat edo gehienez bi erabiltzea bere marrazkia osatzeko, garrantzi gabeko xehetasunetan denbora galdu ez dezan, zuhaitz baten hostoak berdez margotzen, adibidez. *Landu nahi den gaiaren arabera koloreak erabiltzea beharrezko edo komenigarria izanez gero, kolore-kopurua mugatu beharko da.
- Era berean, ikasleei presa eman nahi ez zaien arren, marrazkiak egiteko denbora mugatzea komeni da, beste behin xehetasunetan denbora galdu ez dezaten.
- Ikasleei garbi adierazi behar zaie hitzak ere erabil ditzaketela egoki iruditzen bazaie edo marrazkia argitzeko beharrezkoak iruditzen bazaizkie.
- Marrazkiak egiteaz gain, komenigarria da ikasleen aurrezagutzak eta akats kontzeptualak identifikatzeko, ikasleei marraztutakoaren inguruko galderak egitea, esaterako: Orduan gezi hau hona doa? Beraz, zuk uste duzu elikagaiek bide honi jarraitzen diotela digestio hodian zehar....?

ZENBAIT ADIBIDE ETA MATERIAL ERABILGARRI


Jarraian, inprimatu eta digestio funtzioa gelan lantzeko baliagarri izan daitezkeen marrazkien hasierako oinarria aurkituko duzu.

Esan bezala, marrazketa gai ezberdinen inguruko aurrezagutzak identifikatzeko baliu daiteke. Batzuetan, ikasle guztiei oinarri berdin bat eman diezaiekegu marrazkia osa dezaten, kasu honetan bezalaxe.



DIGESTIO-FUNTZIOA

Marraztu ondorengo silueta bakoitzean adierazitako aparatu edo sistema:
Arnas aparatua, digestio-aparatua, zirkulazio-sistema eta irazpen-aparatua.
Digestio-aparatuaren kasuan, adieraz ezazu ogitarteko bat eta baso bat ur
edanez gero elikagaiek jarraituko luketen bidea.





DIGESTIO-FUNTZIOA

Ikasleek eginiko marrazkietan euren aurrezagutzak identifikatzeko honelako errubrikak erabili daitezke.

	BAI	ASKO	GUTXI BATZUK	EZ
Digestio-aparatuko organo guztiak marraztu ditu.				
Digestio-aparatuko organo guztien izenak idatzi ditu.				
Digestio-aparatuko organo guztiak dagozkien lekuan irudikatu ditu.				
Arnas aparatuko organo guztiak arraztu ditu.				
Arnas aparatuko organo guztien izenak idatzi ditu.				
Arnas aparatuko organo guztiak dagozkien lekuan irudikatu ditu.				
Iraizpen-aparatuko organo guztiak marraztu ditu.				
Iraizpen-aparatuko organo guztien izenak idatzi ditu.				
Iraizpen-aparatuko organo guztiak dagozkien lekuan irudikatu ditu.				





	BAI	ASKO	GUTXI BATZUK	EZ
Zirkulazio-sistemako organo guztiak marraztu ditu.				
Zirkulazio-sistemako organo guztien izenak idatzi ditu.				
Zirkulazio-sistemako organo guztiak dagozkien lekuan irudikatu ditu.				
Urak digestio-prozesuan jarraitzen duen bidea identifikatu eta adierazteko gai da.				
Elikagaien digestioa modu egokian adierazi du.				

